

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakaria V. Autonomia Erkidegoetako Lehendakarien Konferentzian izango da

*Ekitaldia bihar, asteartean, urriak 2, egingo da Senatuaren egoitzan*

Lunes, 01 de octubre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina V. Autonomia Erkidegoetako Lehendakarien Konferentzian izango da bihar. Irekiera-ekitaldia Espainiako Senatuaren egoitzan burutuko da Espainiako Erregea bertan izango delarik. Konferentzia Espainiako Gobernuaren Lehendakariari Mariano Rajoy-k deitu du eta Rajoy bera izango da konferentziaren buru.



Espainiako Senatuaren egoitza.

Konferentzia hori Espainiako Gobernuaren eta autonomia erkidegoetako gobernuen eta Ceuta eta Melilla hirien arteko lankidetzaren organo gorenaren da, haren [araudi](#)aren lehen artikulua dioenez, eta 2009ko abenduaren 14an egin zen konferentziaren aurreko edizioan onartu zena.

Organo horren helburuak dira honako hauei buruz eztabaidatzea: Estatuko esparruko politika publikoen, sektoreko politiken eta lurralde-politiken ildo nagusiei buruz; izaera estrategikoa duten baterako jardueri buruz eta Autonomien Estaturako garrantzi handiko gaien buruz, Estatuko eta autonomia-mailako eskumenei eragiten dietenak, araudi beraren arabera.

Biharko bilkura bi saiotan garatuko da, goiz eta arratsaldean, eta haiek amaitzen direnean, programak aurreikusten du Espainiako Gobernuaren Lehendakariak eta autonomia erkidegoetako lehendakariak iritzi publikoari aztertutako gaien berri eta topaketaren garapenaren berri emango diotela. Esparru horretan, Barcina Lehendakariak prentsaurrekoa eskainiko du Espainiako Goiko Ganberako Manuel Broseta aretoan.